

IRAGARKIA, zeinaren bidez informazio publikoaren izapidean jartzen baita honako lege-aurreproiektua: Enpleguari buruzko Euskal Legea.

Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren 2022ko urtarrilaren 28ko Aginduaren bidez, Euskal Enplegu Sistemaren Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hasteko agindua eman zen, eta, 2022ko ekainaren 6an, agindu hori zuzentzeko, Legearen nomenklatura aldatu zen, eta Enpleguari buruzko Euskal Legearen Aurreproiektua izena hartu zuen.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikulua xedatzen duen arabera, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Horrenbestez, aipatutako lege-aurreproiektua jendaurrean jarriko da hogeitaz egun balioduneko epean, dagokion iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurreko apartatua xedatutakoa betetzeko, eta alegazioak aurkezteko, aurreproiektuaren testua eskuragarri dago Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoaren iragarki-taulan (www.euskadi.eus) eta Lan eta Enplegu Sailaren web-orrian (www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/lan-enplegu-saila/).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 9a

Enplegu eta Gizarteratze zuzendaria,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO